

## Errekaldeko Etxarri 2 Gaztetxea hustu du Ertzaintzak

---

OLATZ SILVA RODRIGO - ION ORZAIZ - MIKEL ARBERAS :: 04/04/2025

Goizaldetik, eremua zaintzapean eduki dute ertzainek eta barruan itxita zeuden zenbait gazte kanporatu dituzte.

Bilboko Errekalde auzoko Etxarri II gaztetxea hustu du Ertzaintzak. 09:00etarako zegoen emana agindua, baina lehenagotik hasi da Ertzaintza eraikinera sartzeko ahaleginetan. Barruan itxita zeuden zenbait gazte, eta haienganaino iritsi dira ertzainak. Denak kanporatu dituzte, baina ez dituzte atxilo eraman; beren kabuz joan dira gazteak. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak jakinarazi duenez, zehapen espedientea ireki diete, Herritarren Segurtasunerako Legea urratzea aitzakipean.

Ondoko garajetik sartu da Polizia gaztetxera. Pareta zulatzen eman dute goiza, gaztetxeko teilatura iritsi diren arte —bertan eman dute gaua zenbait gaztek—. Horren ostean, eraikinaren barruan aritu dira ertzainak zenbait minutuz, beste gazterik ba ote zegoen ikusteko, eta husteko lana bukatutzat jo dute. Barruan zeuden gazteek alde egin dutenean, manifestariak ere joan dira; Ertzaintza bakarrik geratu da.

Hustea salatzeke, gaztetxeko kideek manifestazioa antolatu dute gaur arratsalderako: 19:00etan abiatuko da, Ametzolako geltokitik. «Poliziaren jazarpena eta basakeria ere salatuko dugu manifestazioan», azpimarratu du Iker Villanueva gaztetxeko bozeramaileak. Eta hustearen eta eremu horretan egin nahi duten «proiektu urbanistiko elitistaren» erantzuleak seinalatu ditu: «Bilboko Udala eta Hirigintza zinegotzia». Horrez gain, «interes pribatu horien atzean dauden enpresa handiak» ere izan ditu jomugan; adibide gisa jarri du Amenabar enpresa. Polizia ere erantzuletzat jo du, husteko lana berak exekutatu baitu.

Ertzaintza eraikinera sartzen saiatzen ari zen bitartean, berrehun herritar baino gehiago batu dira kanpoaldean, gaztetxeko kideek sare sozialetan eginiko deialdiari erantzunez, barruan zirenei sostengua adierazteko. Goizaldetik, agerikoak izan dira gaztetxearen aldeko keinuak eta aldarrikapenak. 07:30ean, gaztetxearen barruan zirenek bengala bat piztu dute, eta 08:00etan suziriak bota dituzte. Kanpoan zeudenez, berriz, oihuen eta txaloen bidez helarazi diete barrukoei elkartasuna. Besteak beste, «Etxarri aurrera», «gazte langile, ez zaitez makurtu», «okupazioa delitua bada, gora delinkuentzia» eta «jazarpen polizialari aurre egin» oihukatzen ibili dira.

Etxarri II-ko kideek sare sozialetan jakinarazi dutenez, Ertzaintza goizean goizetik ari zen gaztetxera sartu nahian. Operazio handia antolatu du gaurko kaleratzerako: atzotik furgoneta ugari egon dira gaztetxearen ingurumarietan, eta ertzainak alboko eraikinaren teilatuetan jarri dira. Droneak ere erabili dituzte, eraikina zaintzeko. 09:30 aldera, gainera, helikoptero bat gerturatu da, eta bueltak ematen ibili da eraikinaren inguruan. Herenegun ere bertan izan zen Ertzaintza, baina alde egin zuen gero.

Atzo, 20:30ean, manifestazioa egin zuten, Errekaldeko osasun zentrotik abiatuta. Ertzaintza oldartu egin zitzaion gazteei, eta istiluak sortu ziren 21:00 aldera. Sare Antifaxistak sare sozialetan adierazi duenez, sei manifestari zauritu dituzte bart. Istiluetan lau ertzain ere

zauritu direla esan du Ertzaintzak.

Manifestarien aurkako oldarraldian, bart, bost lagun atxilotu zituen Ertzaintzak. Horietatik lau aske utzi dituztela jakinarazi du *Gedar* agerkariak. Poliziaren bortizkeria salatu du horietako batek, hedabide horretan: «Azaldu du atxilotu ostean furgoi barruan jipoitu zutela ertzainek. Zauriturik dago». Atxilotuei elkartasuna adierazi nahi diete gaurko manifestazioan.

2014an okupatu zuten Bilboko Errekalde auzoko Etxarri II gaztetxea. «Kukutza III eraistearen ondorioz auzoko gazte langileok izan genituen beharrei erantzun kolektibo bat emateko helburuz», gogoratu zuten joan den hilean. Orduetik, hitzaldi, erakusketa, jaialdi eta batzar ugari antolatu dituzte.

Auzoaren erantzuna eta gaztetxeari emandako babes nabarmendu du Villanuevak. «Hamar urte baino gehiagoko proiektu baten alde egin dute auzokideek; urte hauetan, hainbat gazte belaunaldirentzako sozializaziorako eta politizaziorako gunea izan da, baita aisialdi alternatibo batez gozatzeko lekua ere», esan du, eta argi utzi horrek erakusten duela proiektua garrantzitsua dela, eta horregatik erantzuna «irmoa» izan dela. Aurreko asteetan, auzoko eta inguruko 60 eragilek, komertziok eta hogeita hamar artista inguruk husteko agindua bertan behera uzteko eskatu dute, adierazpen baten bitartez. Horrez gain, joan den ostiralean manifestazio jendetsua antolatu zuten auzoan.

Ez da Etxarri gaztetxea hustu duten lehenengo aldia. 2016an, Bilboko Udalak Etxarri ixteko agindua eman zuen, gaztetxearen segurtasun neurriak aitzakia hartuta. «Itxiera bat izan behar zena huste bihurtu zen 2016ko azaroan», gogoratu dute sare sozialetan zabalduko bideo batean. «Hormigoizko hormak altxatu, atak soldatu, eta ura eta argia kendu zituzten». Hala ere, asanbladako kideak barrura sartu ziren, eta barrutik gaztetxea txukuntzen hasi. 2018an jakinarazi zuten proiektuari jarraipena emango ziotela, eta Etxarri II izena eman.

Handik gutxira heldu zen berriz ere husteko agindua, eta horren kontrako elkartasun kanpaina jarri zuten abian. Euskal Herri osotik jaso zuten babes. 2020ko urrirako ezarri zuten husteko agindua, baina, «antolatutako babesari esker», husteko lanak gelditzea lortu zuten, eta «borrokak merezi duela erakutsi eta asanbladako kideak erabat indartu».

**Errekaldeko gaztetxean sartu da Ertzaintza**

---

<https://eh.lahaine.org/errekaldeko-etxarri-2-gaztetxea-hustu>